



8/2020 INSTRUKZIOA, MARTXOAREN 27KOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA: ARAU OSAGARRIAK. KONTINGENTZIA-PLANA.

Zuzendari nagusiaren martxoaren 16ko 6/2020 Instrukzioaren bidez, salbuespenezko behin-behineko neurri batzuk ezarri ziren, koronabirus berriak gure autonomia-erkidegoan eragin duen egoeraren harira.

Neurri horietako bat zen telelanaren modalitatea ezartzeko aukera zegoela, eta modalitate horren antolaketa eta txandak zehaztu ziren; oro har, lantokian bertan (lanaldiaren % 20) eta langileen etxean (lanaldiaren % 80) gauzatu beharreko lanaren txandak banatzeko sistema bat ezarri zen.

6. puntuan adierazten zenaren arabera, Giza Baliabideen Zuzendaritzak ezarriko zituen, Prebentzio Zerbitzuak finkatutako irizpideen arabera, COVID-19arekiko infekzioaren ondorioekiko zaurgarritasun handiena duten langileen kasuan zerbitzuak telelanaren bidez emateko aukeraren lehentasunak.

Koronabirusaren krisiaren egoera dela eta, neurri horiek telelanaren ezarpena malguago aplikatzea ahalbidetuko duten beste neurri batzuekin osatu behar dira, langileen baldintza pertsonalak eta familiarrak kontuan hartuta.

Bestalde, prebentzio-neurriak areagotzeko, komenigarritzat jotzen da lanpostura joan behar diren langileen mugikortasuna murriztea, langileen eguneko lanaldiaren ordutegia egokituz.

Hortaz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak Zuzendaritza Nagusi honi emandako ahalmenak erabiliz, honako instrukzio hau ematen da.

INSTRUKZIOA:

1.- Zuzendaritza Nagusiak, Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzak, Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritzak eta Giza Baliabideetako Zuzendaritzak, beren zuzendariordetzekin eta kasuan kasuko zerbitziburutzekin batera, Zuzendaritza Nagusi honetan zerbitzuak ematen dituzten langileen inguruabar pertsonalak eta familia-kontziliaziokoak kontuan hartu ahalko dituzte langile horiei telelana ezartzeko, baita, egokia bada, erregimen malguagoa ere lanaldiaren % 20-80 banaketaren aplikazioan.



2.- Era berean, aldi baterako, eta alarma-egoera mantentzen den bitartean, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko lanaldia 7 ordukoa izango da, 8:00etatik 15:00etara, eta sartzeko eta irteteko malgutasun ezarriarekin. Horrela, egutegian ezarritako lanaldi arrunta beteko dute langileek.

Aldi baterako neurri honek ez du aldatzen langileek baimendua duten eta orain arte betetzen ari diren lanaldi arruntaren dedikazioaren ehunekoa.

3.-. Instrukzio hau martxoaren 30etik aurrera aplikatuko da, eta alarma-egoeraren amaiera dekretatu arte egongo da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 27an.



Iz.: JUAN LUIS DIEGO CASALS
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA